


Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko urtarrilaren 17a



3.622 haur eta gaztek ikasten dute Barañain, Tuteran, Lizarran, Burlatan, Iruñean, Tafalla eta Zangozako eskoletan.

LUIS AZANZA

Musika Eskolak Gobernuarekin haserre

■ Barañain, Iruñea, Tuteran, Tafalla, Burlata, Lizarra eta Zangozako Udal Musika Eskoletako arduradunak ez daukete oso pozik Nafarroako Gobernuarekin. Diruak du, gehienetan bezala, errua. Zazpi eskola hauek Oinarrizko Kontserbatorio ziren 1994a arte, baina orduan, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legearen bidez

(LOGSE), Musika Eskola bilakatu ziren. Nafarroako Gobernuak hainbat konpromezu hartu zituen une horretan eskolokin, baina, antza denez, ez ditu bete. Gobernuak agindu zien dirulaguntza eskatu ezezik, musikaren irakaskuntzaren alorrean planifikazio gehiago behar dela aldarrikatu dute zazpi eskoletako arduradunek. ■

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Oraindik orain, gipuzkoar gaiztoen inbasioaren berri eman zigunak, Miguel lehendakariak, Bakearen Mahaira deitu du aste honetan. Deia aditu orduko, baiezkoa eman dio Arbeloaren partiduak. Gauza izan badira aurtengo aurrekontuak adosteko, arazo handirik gabe gainera, itxoiteko zen erabateko adostasuna lortuko zutela baita kontu honi dagokionez ere. Ekimenak, beraz, ez du inor ustekabeen harrapatu. Urralbururen ildo beretik abiatuz, probintziako bi partidu nagusien mandatariek hedabideetako titullarrak nahi dituzte haienentzat, bilkura horretatik deus eraginkorrik ez dela aterako ondo jakinda ere. Finean, indarkeriaren arazoak biziki kezkatzen dituela adieraztea dute helburu: itxura egitea jendaurrean, alegia. Urralbururekin gertatu zen bezala, orain ere, nafar gizarteari jakinaraziko diote baietz, indar polizialez aparte beraien ere badutela ardurak eta adorerik biolentoei galga ezartzeko orduan, beraien esku dagoela zuzentasuna eta demokraziaren defentsa, bakean ez bi-

Irten ezinik

zitzearen arrazoi bakarra egitura politikoa onartzen ez dutenengan datzala, berdin dio azken hauek biolentziaren aldeko edo kontrakoak izan. (Baita orain ere, isilik gelditu dira isilik, EHko pegatina eramateagatik erre dituzten ibilgailuen kasua dela eta. Zergatik ote?). Bitartean, *Oldartzen* estrategia hartu zutenek, negoziaketa ezarri ezean, sufrimendu handiko etorkizuna iragarri dute denontzat. Euskal herritarrok zein espainiarrek jakitun behar dugu / dute izan, borroka politikoak ez duela zentzurik gure artean baldin eta hildakoak eta txikizioak lehenengo planoan ez badaude. Aspalditxo da estrategia hori finkatu zutela, eta ondorioak ezin okerragoak dira: goitik inposatu dizkiguten zatiketa administratiboez gain, beste zatiketa bat —askoz sakonagoa beraz— ari baita gure herria nozitzen, elkarbitzita puskatzearen ondorioz egun suertatzen ari dena. Behin puntu horretara ailegatuta, hau da, barne kohesioa puskatzeraino iritsiko bagina —eta nago bide horretatik goa-

zela— alferrik izanen da edozein saio justizia, solidaritza eta askatasunean oinarriturik nazio oso bat eraikiko bada. Estrategia suizida hori erroto da dagoeneko zenbaitengan, azken hilabeteetan protagonizatu dituzten astakeriak lekuko. Hemen, asko gara euskal presoak Euskal Herrian ikusi nahi ditugunak, lehendabizi bertako kartzeletan, eta, behin beharreko distentsioa lortu ondoren, kalean libre. Eta hori, ahalik eta lasterren. Distentsio seinaleaz ari naizela, gaur urtebete egin du Ortega Larak ETaren esku. Bere askatasunak aisatuko luke, duda gabe, bake-bidea. Susmoa daukat, metafora gisa, laberinto baten barrenean bizi dela herri / ezherri hau, non, eraikitzeko eta sunsitzeko indarrak pareko eta aldi berekoak diren. Agian, horixe bera izan liteke gure patu historikoa: laberinto horretan barrena nekerik gabe ibiltzea, elkarren kontra joz, kanpotik irteerako atea ixten duten bitartean. Hala balitz, sartu den atetik irten beharko! x

* **GURE AUKERAK**

KONTZERTUAK

Iruñea: Pablo Sarasate orkestrak zikloko hirugarren kontzertua eskainiko du gaur, hilak 17. Orkestrarekin Isabel Villa biolin jole bakarlaria ariko da.

Iruñea: Flitter taldeak bere hirugarren konpaktoa aurkeztuko du bihar, hilak 18, Sanduzelaiko Txokoan, gaueko 22:00etatik aurrera. Lizarrako taldearekin batera Pilt eta Chainas ariko dira. Kontzertuaren gibeletik, gaupasa izanen da. Sarrerak 500 pezetan izanen dira salgai.

Iruñea: Ella baila sola taldeak kontzertua eskainiko du bihar, hilak 18, Gaiarre antzokian, gaueko 21:00etan.

ERAKUSKETAK

Lizarra: Dora Salazar artista altsasuarraren *Diarios y objetos* erakusketa izanen da Gustavo de Maeztu museoan, otsailaren 15era arte.

Burlata: Gardenaren (Nafarroako artisten elkarte) marrazkiak ikusgai izanen dira hilaren 21era arte herriko kultur etxean. Aretoa astelehenetik ostiralera 19:30etatik 21:30etara izaten da zabalik, larunbatetan 18:00etatik 20:00etara, eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara.

Tafalla: Andres Indurain, Josexo Oriente eta Jose Antonio Perez argazkilarien lanak ikusgai izanen dira hilaren 29ra arte herriko kultur etxean.

BESTELAKOAK

Barañain: IKAKo Sahats euskaltegian hurrengo hiruhilabete-koari begira izena emateko epea hilaren 31 arte izanen da, ordu-tegi eta urrats guztietan. Informazio gehiago jasotzeko deitu 18 83 25 telefonora.

Iruñea: Xabi Goñi mendigoizalearen eskutik, Eskoziako mendiei buruzko diapositiba emanaldia izanen da gaur, hilak 17, arratsaldeko 20:00etatik aitzina, Nafarroako Kirol Elkartean egoitza (Jarauta, 78).

Iruñea: Pasaiatik Donostiara ibilaldia antolatu du Nafarroako Kirol Elkarteko Mendi Eskolak heldu den iganderako, hilak 19. Izena emateko deitu 22 98 20 telefonora, edota elkartean egoitzara joan (Jarauta 78).

Iruñea: Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkartek ikastaro eskaintza zabala prestatu du urte berriko lehendabiziko hiru hilabetearako: eskulanak, yoga, txalaparta, dantzak, argazkigintza, *aerobic*, eskultura... Izena emateko astelehenetik ostiralera 11:30etatik 13:30etara eta 18:00etatik 21:00etara elkartean egoitza (Aldapa, 5). Informazio gehiago jasotzeko deitu 21 25 26 telefonora. Ikastaroak urtarreko hirugarren astean hasiko dira.

nafar kronika

Patxi Larrion

Elurtearen ondorengo ur uherrak

Jaime Iribarrenek askatasun osoz egin adierazpenek eztabaida piztu dute. Egia esan berak eginiko adierazpen bat izan da hizpide. Gainerako guztiak, ohi den bezala, ez du aipamenik merezi izan. Onerako edo txarrerako, norberak hauta dezala, oihartzuna eta eragina ondorengo mugimenduetan. Mahaia biltzekotan da, Ajuria-Enekoak elkartu baino lehen, horretan ere atzindari gurean.

Bestaldetik, CDNk bizi duen krisia areagotu egin da. Ustezko krisia, orain artekoak zurrumurru interesatuak izan baitira. Gaurko arratsaldean argituko omen da afera. Tronpatzeko arriskua begi-bistakoa bada ere, ondorengo hi-

labeteotan alderdi horren barnean gerta daitekeenaz jardungo naiz. Ondarreko tantoa, Iribarrenen adierazpenaren aurrean alderdi buruek erakutsitako jarrera izan omen da. Denboran aski hurbil, CDN barnean eztabaida galdetzen dutenak, elkarlanaren kontra azaldu ziren. Jokabide *erregionalistegiak*, ene gusturako.

Izan ere, UPN-PSN eztialdiak zer pentsatu franko eman die ustezko kritikoei. Boterearen arrimuan bizitzea kilikagarria da oso. UPNk, etorkizun hurbilean, Alli zerrendaburua izanik lor zezakeena, lortu baitezake. Gehiengo mada-rikatuaz ari naiz, kontrastea ezaugarria duen lurralde honek behar ez duen gehiengoa. Ez gaitezen tronpa, oker egon nahiko nuke.



asteko pertsonaiak



Francisco Javier Ansuategi
Madrilgo Gobernuako ordezkaria

■ Ansuategik Espainiako hedabide gehienetan oihartzuna izan duen prentsaurrekoa eskaini zuen joan den asteartean, ustez *Y talde* ospetsuetako kideak diren 20 gazte iruindarren atxilotetaren berri emateko. Madrilgo Gobernuako ordezkariak adierazi zuenez, operazio «arrakastatsua» hilabete askotako ikerketaren eta herritarren laguntzaren ondorioa izan da. Txemi Gorostiza atxilotutako gazteen abokatuaren hitzetan, berriz, guztia marketin kanpaina hutsa izan da: Poliziak sarekadaren hasieran sabotajeetan parte hartu omen zuten 30 lagun identifikatu zituen, baina gutxi batzuk eta apurka-apurka besterik ez ditu atxilotu. «Koadrilak *Y talde* bihurtu dituzte», adierazi zuen.



Maria Dolores Iribas
Jubilatua

■ Ansuategik bezala, Maria Dolores Iribasek ere Euskal Herriko eta Espainiako hainbat hedabideren arreta bereganatu du aste honetan. Lizarrako erretiratuak, dena dela, ez du inor atxilotu. Leon Duquive, 22 urteko Ruandako errefuxiatua, adoptatu egin du. Iribas andreak ostatu batean lo egiteko gela ordaintzen dio errefuxiatuari, eta etxean jaten ematen dio. Horren truke, ruandarrak etxeko lanetan laguntzen dio. Duquivek zazpi hilabete eman ditu Ceutako (Espainia) Calamocarro errefuxiatu kanpalekuan. Madrilan irakasle lanetan 30 urte eman eta gero jubilatu berri den lizarratarra Zaireko eta Ruandako egoerari buruzko mintzaldian izan zen joan den azaroan. Horren gibeletik, egin duena egitea erabaki zuen.

ahaztu gabe!



EUSKARAREN UNIBERTSOA

Iruñea: Euskararen Unibertsoa mugimendu sorberriaren nondik norakoak azalduko ditu Iñaki Zabaletak heldu den asteartean, hilak 21, arratsaldeko 20:00etan, eta Zaldiko Maldiko elkartean Antsoleaga kaleko egoitzan. Euskararen Unibertsoa mugimendua gizarteko eragileekin elkarlanen (administrazio, alderdi, sindikatu, enpresari eta abarrekin) azken urteotako euskalgintzaren balantze kritikoa egiteko xedearekin sortu da. Helburua gauzatzeko, heldu den martxoaren 7an eta 8an euskararen inguruko jardunaldiak egingen dituzte. Mugimendu sorberriak hiru txosten prestatu ditu, topaketa horien oinarri izan daitezten. Euskaltzale orori gonbite bikoitza egin diete. Batetik txostenoi nahi adina ekarpen egiteko, eta bestetik topaketetan parte hartzeko. Iñaki Zabaleta Euskararen Unibertsoa batzorde eragileko kidea horren guztiaren inguruan mintzatu da heldu den astearteko ekitaldian.

a di!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkar-rrizketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Bera

Herriko trabesbidea hobetzeko proiektua aurkeztu berri dute

Nafarroako Gobernuaren oniritzia beharko da lanak aurten egin ahal izateko

J oan den ortziraletan aurkeztu zen jendearen aitzinean Berako trabesbidea hobetzeko proiektua. Proiektuak herria zeharkatzen duten errepide guztiak biltzen ditu eta Altzateko plazan jasoko ditu berrikuntza nagusienak. Hobe-kuntzaren aurrekontua oraindik finkatu gabe dagoen arren, 150 milioi pezeta ingurukoa izanen dela aurreikusi da.



Lanak egin eta gero, marrazkiak azaltzen duen itxura izanen du Altzateko plazak.

PATXI CHOCARRO

Jon Abril / Bera

BERA zeharkatzen duten errepideen egoera ikusirik, Udalak hauek hobetzeko egitasmoa abian jarri du. Hobetu beharreko zatiak nagusiki hiru dira: Arkaitza harrobitik hasi eta San Miguel kalea bukatzen den lekuraino; Bidasoa kaleak eta Eztegarra pasealekuak bat egiten duten puntutik Ilekua auzoko errotaraino; eta Itzea auzoan Ibardingo errepidea hasten den zatiraino. Patxi Chocarro eta Maria Urmeneta arkitektoek aurkezturiko proiektuan hiru dira berrikuntza nagusiak: Agerra auzoan eta ikastola berriaren azpiko aldean egingo diren bidegurutzeak eta Alzateko plazak hartuko duen itxuraldaketa.

Agerrako bidegurutzea Geltoki karrika eta Bidasoa kalean artean egongo da. Egun herriko saihebidera kamioi eta autobusek hortik ateratzeko dituzten zailtasunak kontuan izanik, bidea errazteko asmoa du bidegurutzeak. Era berean, herrira sarzeten direnentzat abiadura jasateko modua ere izango da hau. Azkenik, Agerra auzoko sarreraren antolamendua ekarriko du. Honen erdian kono itxurako gune loreztatu bat izanen da, batez ere zuhaitzez osatua.

Ikastola berriko bidegurutzearekin ere abiadura moteldu nahi da eta herrigunea antolatu. Egunen batean Alzateko saihebideta egitekotan hortik aterako da

eta Kanttonberri kalerako sarrera ere bidegurutze horretatik egingo da, Guardia Zibilaren kuartelaren atzineko aldean egongo baita bidegurutze hau. Era berean Iamoteneako parkinerako sarrera hortik egingo da, eta oinezkoentzat pasagune bereziak egingo dira.

Altzateko plazan berrikuntza nagusiak • Baina moldatze lanik handiena Alzateko plazan egingo da. Plaza honek arazo ugari sortu ditu konponketak pentsatzeko unean. Patxi Chocarro arkitektoaren arabera, «herriko plaza izateaz gain, hainbat funtzio betetzen ditu eta horrek guztiak gauzak zaildu egiten ditu. Iparralderako pasagunea da, errepide nazionala, beraz; beste-gunea ere bada, eta aparkalekua eta oinezkoendako pasealekua». Egitasmo berriak ere horiek guztiak jasoko ditu, baina oinezkoei emango zaie lehentasuna. «Oinezkoendako lekua izango da, eta autoek horretaz jabetu beharko dute pasatzean, ez dela eurei dagokien lekua», adierazi du Chocarrok.

Horretarako zoruaren materialak ez dira asfaltozkoak izanen. Bi aukera aztertu dira: hormigoizko adokinak edota koloreztatutako hormigoizko impresoa. Antza, bigarren aukeraturiko dute, epe luzera arazo guttiago sortzen duelako. Adokinak erraz altxatzen dira, baina moldaketak ere errazagoak dira egiten. Bi-

garren aukerak, aldiz, hor du arazo nagusia, altxatu behar izanez gero konponketa ez dela batera erraza. Hala ere, horretarako ere konponbiderik pentsatu da. «Lurraren azpiko aldetik ura, argindarra, telefonoa edo bertzelako kableak sartu behar badira horientzat lekua prestatuko dugu, zuloak barrutik eginak», azaldu du Chocarrok. Foruen plazan ere material bera erabiliko da, Legia kaleko adokinari bukaera emateko.

Plazaren berrikuntza nagusia da espazio bakarra izanen dela. «Oinezkoei arreta handiena jarri behar badiegu ezin dugu espaloirik jarri, horrek autoak bertze maila batean jartzen baititu eta abiadura areagotzea baitakar», agertu du Manuel Iriarte alkateak. Urak jasoko dituen ubideen eta lurtean jarriko diren aluminioko seinale tiki batzuen bidez ibilgailuen bidea adieraziko da, eta hortik kanpo aparkalekuak eta oinez ibiltzeko lekua egongo da. Baina autoek aparkaleku gisa plaza osoa har ez dezaten, bidea debekatuko dieten kateak jarriko dira.

Egun dagoen kioskoa desagertuko da eta bere oredez ez da bertzerik jarriko, behar denean muntatuko baita. Era berean, komun biologiko bat jartzea aurreikusi da.

Gobernuaren erantzunaren arabera • Baina lan hauek guztiak aitzinera eraman ahal izateko Nafarroako Gobernuaren

laguntza derrigorrezkoa izanen da. Gobernuaren esku egongo dira errepideei dagozkien lan guztiak eta ur-saneamenduko lanen erdia. Udalak, bere aldetik, ur-saneamenduaren bertze erdia eta espaloiak ordaindu beharko ditu. Zati handiena, hala ere, Gobernuak ordaindu beharrekoa da, karrika guztiak altxatu behar baitira, espaloiak bere hortan geldi daitezten, eta ondotik asfalto berria bota. Udalak bere gain duen kosturik handiena, beraz, Alzateko plazarena da. Udaltzian oraindik gai hau eztabaidatu ez den arren, ez du ematen arazo berezirik sortuko duenik. Horregatik, alkateak aurten aurrekontuetan sartu behar dela uste du. «Bideek behar handiak dituzte eta aurten ahaleginduko gara. Udaletxeak jarri beharreko diru kopurua hagitzetik da, ia deus ere ez plaza kontuan hartzen ez bada. Gobernuak gainerakoaren % 100a bere gain hartzen duenez euren erantzunaren arabera egingo da aurten. Gure aldetik, lehenbailehen egin dadila nahi dugu», azaldu du Iriartek.

Udalbatzak proiektua aste honetan onartuko du eta ondoren errekurritzeko epea zabalduko da. Horretarako egitasmoa jende aurrean egongo da. Inork errekurritzen ez badu onartua geldituko da eta Nafarroako Gobernuaren erantzunaren arabera aurten egin ahal izanen da edo bertze urte baterako utzi. X

Tafalla

Nafarroa Oinez-en aurkezpen herrikoia egingen dute igandean

■ Goizeko hamaiketan hasiko dira ekitaldiak

Erredakzioa / Iruñea

TAFALLAKO ikastolako guraso eta irakasleek aurtengo Nafarroa Oinez-en aurkezpen jaia egingen dute igande honetan, urtarrilaren 19an. Urriaren 19an ospatuko den Nafarroa Oinez herritarren aurrean aurkezteko prestatu dute antolatzaileek jai hau. Igandeko ekitaldiak goizeko hamaiketan hasiko dira. Ordu horretan, hain zuzen, azoka jarriko dute Nafarroako plazan, eta arratsaldeko hirurak arte izanen da. Bertan, besteak beste, gazta, ardoa, babarrunak, odolkiak, barazkiak, taloak, sagardoa, pateak eta ezta izanen dira saltzeko eta dastatzeko. Tafalla aldeko artisauak ere euren produktuak erakusteko aprobetxatuko dute igandeko feria berezia. Azokan, beraz, ez da deus ere falta.

Eguerdiko hamabietan, bestalde, kalejira aterako da plazatik. Udaleko eta ikastolako erraldoiak, Tafallako eta ikastolako dantza taldeek eta zarpantzarrek aterako dira herriko karriketaren barrera.

Ordu bata eta erdiak aldera, Tafallako Musika Bandak joko du. Bandak, hain zuzen, *La Piltindros* jota joko du eta erraldoiek eta dantzariak, berriaz, elkarrekin dantzatzeko dute musikaren doinuak. Ondoren, aurtengo Nafarroa Oinez-en aurkezpen ofizialeko ekitaldi nagusia hasiko da. Hainbat lagunek hartuko dute parte aipatu ekitaldian, hala nola, Tafallako alkateak, Nafarroako Gobernuako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko buruak, Nafarroako Ikastolen Elkarteak zuzendariak eta ikastolako zuzendariak.

Hizlariak euren txanda amaituta, Tafallako Jota Eskolako haurrek euren emanaldia eskainiko dute. Nafarroa Oinez-erako logotipoa eta leloaren lehiaketaren sariak ere banatuko dira ekitaldi ofiziala amaituta.

Tafallan urriaren 19an ospatuko den Nafarroa Oinez-en leloa, hain zuzen, *Lan ta lan, auzolan* izanen da, eta Jaione Izuriaga Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako ikasleak egin du. Logotipoa, berriaz, Koldobike Perez de Iriartek egina da.

Leloa aukeratzeko garaian ikastolako ikasleek asmatzea polita izanen litzatekeela pentsatu zuten antolatzaileek eta Jaionerena aukeratu zuten. Zergatik? Tafallan betidanik ezagutu den hitz eta jardura delako auzolana. X


Musika Eskolen
egoera eztabaidagai

Harmoniarik gabeko harremnak

Lehen hartutako konpromezuak bete ditzala eskatu diote Udal Musika Eskoletako arduradunek Nroako Gobernuari

Lehen Oinarrizko Kontserbatorio ziren Barañain, Tuter, Iruñea, Tafalla, Burlata, Zangoza eta Lizarrako Udal Musika Eskoletako kideak haserre dabilta Nafarroako Gobernuarekin, LOGSEK agindutako aldaketa gertatu zenean haiekin hartu zituen konpromezuak bete ez dituelako. Arreta gehiago eskatu dute zentroetako arduradunek, baita planifikazioa ere musika irakaskuntzaren alorrean.

Edurne Elizondo / Iruñea



ordezkariak, eta joan den abenduaren 30ean Nafarroako Parlamentuko talde ezberdinekin elkarriketatu ziren, euren laguntza jasotzeko asmoz.

Abenduaren 14an Barañainen egindako bilera onartu eta Gobernuari zuzendutako eskaerak erakutsi zituzten Parlamentuan ere, Joaquín Olloki Barañaingo Kultur Patronatuko lehendakariak jakinarazi digunez. Bost puntutan laburbildu daitezke aldarrikapenok: Musika Eskolek Nafarroako irakaskuntzaren barruan betetzen duten papera onartzea, lehenik; lehen aipatu eskolen aurrekontuaren % 33 ordaintzea, bigarrenik; irakaskuntza publikoko beste zentroen parean egotea, hirugarrenik; kontserbatorio zirenean zuten beka sistema berreskuratzea, laugarrenik; eta Nafarroako Gobernuak musikaren irakaskuntzaren inbertitzen duen diruari buruzko azterketa egitea, bosgarrenik.

LOGSEren musikaren irakaskuntza sistema aldatu zenean, Nafarroako Gobernuak lehen Oinarrizko Kontserbatorio ziren Musika Eskolekin hartu zituen konpromezuei etsitako ote zien zen eskola hauetako arduradunen kezka nagusia. Ordura arte, zazpi herri hauetako kontserbatorioen finantzaketa Nafarroako Gobernuaren, herri bakoitzeko Udalaren eta Musika Eskoletako erabiltzaileen esku zegoen. Bakoitzak eskolaren aurrekontuaren % 33 ordaindu behar zuten.

Berrik ez musika eskolentzat

Beraz, arazo ekonomikoak dira Musika Eskolek dituztenak, baretik, eta egiturazkoak bestetik. Diruari dagokionez, eztabaida zaharra da. Izan ere, 1991. urtetik Nafarroako Gobernuak izoztuta dauka Musika Eskola hauei ematen dien laguntza. Egun, adibidez, Gobernuak ematen dien dirulaguntza eskolen aurrekontuaren % 33 izan



ordez % 12 eta 22 bitartekoa da, eskolaren arabera. Finkatutako agindutako kopurutik urrun, edozein modutan, Parlamentuko talde batekin eta besterekin mintzatu ondoren, baikor dira eskolako ordezkariak, eta euren es-

kaerak aurrekontuei aurkeztutako zuzenketetan jasoko dituztela espero dute, eskolei eskaintako dirulaguntzak handituz.

Diruaz hitz egitean, Kontserbatorio zirenean zazpi herri hauetako zentroek zuten beka sistema ezin da ahaztu. «Musika Eskola bihurtu ginenean, beka mantenduko zirela agindu zigun Gobernuak, baina horren ordez jaso dugu denena den iritzia. «LOGSEK ezarritako planak betetzen dituen jarduera da musika eskolena, ikastetxe publikoak dira, baina hala eta guztiz ere guztiz baztertzeko gaitu Nafarroako Gobernuak. Ez dugu bekarik, eta agindu zigun laguntza ere ez du betetzen», azpimarratu du Carmen Bordak. «Honek honela jarraitzen badu, dirudunek baino ezin izanen dute musika ikasi, irakaskuntza elitista bila-



zientziari etsi ez dionez, herri bakoitzeko udalak eta ikasleek hartu behar dutelako beren gain puska hori. Ondorioz, zentro gehienetan gora egin dute matrikulek. Burlatan, adibidez, 1993-1994 ikasturtean % 30eko gorakada izan zuten.

Honek ikasleen gurasoak kezkatzen ditu batez ere. Burlatako Hilario Eslava Musika Eskolako Gurasoen Elkarteak kideekin mintzatu gara eta euren ahotik jaso dugu denena den iritzia. «LOGSEK ezarritako planak betetzen dituen jarduera da musika eskolena, ikastetxe publikoak dira, baina hala eta guztiz ere guztiz baztertzeko gaitu Nafarroako Gobernuak. Ez dugu bekarik, eta agindu zigun laguntza ere ez du betetzen», azpimarratu du Carmen Bordak. «Honek honela jarraitzen badu, dirudunek baino ezin izanen dute musika ikasi, irakaskuntza elitista bila-

Argi Barañain Iruñeko Eskoletatik ikasi, saxofoi eta pianoari hauetakotan jo daitezke bait musika. Bakark, taldeekin dute nek. LUIS

tuko da», gaineratu du Nina Alcantarak.

Musika Eskolei ematen dien edo ez dien dirulaguntzak gain, Nafarroako Gobernuak oro har musikaren irakaskuntzaren alorrean gastatzen duen edo inbertitzen duen dirua ere bada Musika Eskoletako ordezkariaren ardurak. Arazoa, finean, askoz sakonagoa baita guztien iritziz. «Musikaren garapenaren fenomeno positiboa izan bada ere, tokian-tokio ekimenak garatu dira. Baina musikaren irakaskuntza orokorrean ulertu behar dugu. Horregatik, azterketa serioa behar dela udu dugu. Aztertu behar da Nafarroako Gobernuak zenbat diru gastatzen duen musikaren irakaskuntzan, baita nola gastatzen duen ere. Hori da garrantzitsuen, dirua modu egokian gastatzea. Orkestra batean ehundaka milioi gastatzeak ez du zentzurik izanen,



agian, oinarriak ere bultzatzen ez badira. Finean, musika eskoletatik aterako dira orkestrak osatuko dituzten musikariak», azaldu du Miguel Esparza Barañaingo zuzendariak.

«Musika eskolen mapa osatu beharra dago». Marisa Etxeberria Iruñeko Joaquín Maya Musika Eskolako zuzendariarentzat musika eskolen mapa osatzea da gauzak ongi egiten ari direla ziurtatzeko modurik egokiena. «Tokian-tokio beharrak aztertu behar dira eta horien arabera ekin». Oraingo, baina, ez dago halakorik Nafarroan. Horrek bere alderdi on eta txarrak ditu Etxeberriaren ustez. «Baretik, udaletxe sortzailek euren musika eskola sortzeko autonomia dute, baina bestetik, planifikazio eza dakar».

Edozein modutan, Musika Eskolen jarduera bultzatu eta indartzea funtsezkoak izan behar dira. Zeregin horretan Gobernuak duen erantzukizuna ezin da ahaztu beraien ustez.

Hori lortzea, baina, ez da dirudien bezain erraza, LOGSEren bidezko aldaketak gertatu direnetik batez ere. Izan ere, LOGSEren bidez, printzipioz, irakaskuntza orokorrean bertan sendotu behar da musika irakaskuntza. Marisa Etxeberriaren ustez, hori neurri batean lortu da: «Denbora gehiago eskaintzen zaio musikari eta irakaskuntza ere prestatuagok daude, tituludunak dira». Baina Iruñeko Musika Eskolako zuzendariaren irudikoz ezin da ahaztu «kastetxean haurrak inoiz ezin izanen duela musika tresna bat jotzen ikasi. Horretarako Musika Eskolara etorri behariko du». Eta joan, joan egiten dira, Etxeberriak azpimarratzen duenez: «Gaur egun euren seme-alabek musika ikas dezaten nahi dute gurasoek. Eskakera benetakoa da eta guk erantzun behar dugu. Baina horretarako Gobernuaren babesa behar dugu».



Nafarroako Gobernuak 1991. urtetik ez du igo musika eskolei ematen dien laguntza. Egun, adibidez, Gobernuak ematen dien dirulaguntza eskolen aurrekontuaren % 33 izan ordez % 12-22 bitartekoa da, eskolaren arabera. LUIS AZANZA

Lehentasan kontua

LEHEN oinarrizko kontserbatorio ziren musika eskolek plaza-ratutako aldarrikapenei buruz, Nafarroako Gobernuak badu zer erranik. Santiago Arellano Hezkuntza Departamentuko buruarekin mintzatu gara horren berri jasotzeko. Bera, Nafarroako Gobernuaren borondate ezaz edo konpromezuak betetzeko gogo ezaz baina, lehentasunet buruz mintzatu da, hori baita, bere hitzetan, egun dagoen arazoa laburbiltzen duen hitza. Eta Nafarroako Gobernuak lehentasunet buruz mintzatu da, hori baita, bere hitzetan, egun dagoen arazoa laburbiltzen duen hitza. Eta Nafarroako Gobernuak lehentasunet buruz mintzatu da, hori baita, bere hitzetan, egun dagoen arazoa laburbiltzen duen hitza. Eta Nafarroako Gobernuak lehentasunet buruz mintzatu da, hori baita, bere hitzetan, egun dagoen arazoa laburbiltzen duen hitza.

Nafarroako Gobernuak % 33ko subentzioaren bidetik joateko konpromezua hartu zuela, «nahiz eta idatzirik ez egon. Baina, oraingoz, Gobernuaren lehentasuna beste bat denez, aurrekontuetan ez dago musika eskolei merezi duten arreta eskaintzeko aukerarik».

Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspenen arabera, 2000. urtean egonena da LOGSE gutiz ezarria Nafarroako irakaskuntza orokorrean. Ordutik aurrera, «beste helburuak betetzeko garaia izanen da». Eta Arellanok horietako bat musika izanen dela azpimarratu du. Baina Arellanok aurreratu duenez, Hezkuntza Departamentuak ez du musika eskolen arteko be-

reizketarik eginen, hau da, lehen kontserbatorio izandako eta izan ez diren musika eskolen artean ez da ezberdintasunik egon. Banatzen diren laguntzak eskola bakoitzaren araberakoak izanen dira bakarrak. Musika eskoletako ordezkariak Parlamentuko bilera ere mintzagai izan du Santiago Arellanok, eta beretzat Nafarroako Gobernuak bere gain hartzerik ez dituenak Parlamentuak zuzenketen bidez jasotzea «pozgarria» dela azpimarratu du. Beren helburuak betetzeko aukera bakarra, beraz, Parlamentuaren bidetik lortuko duite egun musika eskolek. Hezkuntza Departamentuak musika eskola guztiak parekatzeko joera plazaratu badu ere, oinarrizko kontserbatorio izandako musika eskolek, gaur egun, badute bereiztasunik. Izan ere, plan zaharra eta LOGSEren plan berria batera daude oraindik guztietan. Hori dela eta, eskaera zabal bati behar bezalako erantzuna emateko gai izan behar dute musika eskolek. Oinarrizko kontserbatorioen lana, laburbilduz, musikaren alorreko profesionalak prestatzea bazen, musika eskolen betebeharra askoz zabalagoa da. Hau da, profesional izan nahi dutenek musika eskolatan eman behar dituzte lehen urratsak, baina musika leku ez-profesionalen ulertzen dutenek ere badute bertan lekukirik. X

Xanti Begiristain

Iragarpenak eta mehatxuak



■ Pentsa dezagun, esate baterako, eguraldi iragarle batek honako gauza hauexek esaten dituela, alegia, «ipar haizeak jotzen badu, sartzen baditu itsasaldeko hodei hezeak eta hozberoa zero gradu edo gutxiagokoa baldin bada, orduan botatzen duena elurra izanen da». Edo beste hau: «Neguan, gauez, oskarbi baldin badago eta ez baldin badabil hego-haizerik, 600 metrotik gora izotza, lantxurda, horma eta abar egimen ditu». Eta azkenik: «Udan oskarbi baldin badago eta hego-haizea sartzen bada, Euskal Herrian, ateri egoteaz gain, beroa ere beroa izanen da».

Beno ba, goragoko iragarpen horiek, jende arrunt gehienarentzat egia hutsak baino ez dira, gauza objektibo, zientifiko eta frogatuak direlako. Baina hala ere, jakina da pertsona guztiek ez dutela gauzak ulertzeko modu bera, eta orduan sortzen dira arazoak. Izan ere, beti egoten dira gizaki *arrarotxo* bakar batzuk, aurreko iragarpenak beste era batez ulertzen dituztenak; are gehiago oraindik, bestela ulertzeaz gain, mehatxutzat hartzen dituzte hainbat eta hainbat kontu. Adibidez, aurreko esaldietan pertsona arraro horiek, mezua zuzen ulertu beharrean, *interpretatzen* dute eguraldi iragarlea mehatxuka ari zaiela elurra, lantxurda edota sargoria-ekin, eta honelako gertaerak, nire ustez, beren errua edo erantzukizuna baino ez dira; ezer ez dagoen lekuan mamuak ikus-entzuten dituzte, baina horrek ez du esan nahi egiazkoak direnik.

Ongi ba, honek guztiak gogorarazten dit, aurreko egunetan, Jaime Mayor Orejak, Juan Maria Atutxak, Miguel Sanzek eta beste askok egin duten interpretazioa Jaime Iribarrenek esandakoaz. Hasteko adierazi behar da ahaztu dutela mamiazko mezu guztia eta atera dutela testuingurutik interesatu zaien esaldia, mila aldiz errepikatzen komunikabide gehienetan, Ezker Abertzalearen aipua kendu eta ahal duten neurrian satanizatzen.

Beno ba, nire iritziz, inolako mehatxurik egin gabe, Jaime Iribarrenek esandakoa oso gauza ulergarria eta garbia da, hots, euskal preso politikoei jasaten duten egoeran eta Euskal Herriak dituen eskubide demokratikoen gabezia (autodeterminazioa, lurraldetasuna, eta abar) Espainiako eta Frantziako gobernuek ez badute aldatzen beren jarrera, orduan parramenak eta sufrimenduak jarraitu egingen dute. Ikusten denez, ez da inolako astakeria. Zoritxarrez, orain arte horixe gertatu da, eta egoera eta baldintzak aldatzen ez baldin badira, zer arrazoi dago ba orain ondorioak ezberdinak izateko?

Gai berean sakonduz, esan beharko genuke honelako adierazpenak lehenago ere egin dituztela Floren Aozek, Tasio Erki-ziak, Jose Maria Olarrak eta abar. Baina ez hori bakarrik, baizik eta Jaime Mayor Orejak berak ere behin baino gehiagotan esan izan ohi du susmatzen zutela sarri gerta litekeela atentaturen bat Madrilen eta beste nonbaiten. Eta Juan Mari Atutxak beste horrenbeste. Hemen ikusten da ba, ez dela batere logikoa HBko politikariek egiten dituzten iragarpenak deabruaren biraotzat hartzea, eta gainerako guztiek esandakoak Jainkoaren hitzak bailiran jotzea.

Bukatze aldera, behin baino gehiagotan gogoratu beharko diegu *ulertzaile txarrei*, nahi edo nahi ez, Euskal Herrian auzi politiko izugarri handia dagoela Espainia eta Frantziako gobernuekin. Eta arazo politikoak konpontzen direla neurri politikoe-kin, eta ez ekintza polizial hutsez. Era berean, oroitarazi beharko diegu badagoela bake proposamen ofizial eta serio bat (bakarra orain arte) *Alternatiba Demokratikoa* izenekoa; proposamen serio gehiago aterako balute gobernuetakoek hobe. Eta amaitzeko: HBko Mahai Nazionalako guztiak atxilotzeak ez dut uste lagunduko duenik gatazka bukatzen. Mayor Oreja, ulertzen al duzu orain? ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Emaztekien segida
XVII: Balendiñe
Albizu olerkaria

■ «Sarritan nere baitan / Auxe det esaten / Zuregatik ez balitz / Zer egingo nuken / Nere biotza askotan / Egoten da egarri / Zure iturrian det / ur gozo ugari / Olerkia zu zera / Nere lagun ona / Zuga nik arkitu det / ainbat zoriona». Aitzina doaz euskaraz izkiriatu duten emakumeen berri emateko ondu ditugunak. Haatik, oraino liteke andrazko euskal idazlerik ez dagoela lerrakeen inor kamutsik. Bere kalterako, ordea. Eta gaurkoan giputza, Zumaiakoa hain zuzen, Balendiñe Albizu Aizpurua olerkari findu eta minberakorra hots, goiko hasmenta bertsoen egile mardoa. Itsasertzeko esan herriko San Telmo karrikan zazpi haurridetan alaba bakoitza 1914.eko irailaren 18an sorturik, hanka egin beharra izan zuen gerratearekin batera. Lehendabizi itsasontziz Ondarruraino, eta hartan, anaiengandik ere aldendurik, itzal luzeko Ixaka Lopez-Mendizabal inprimagile tolosarrak eroan zuen Bilbao aldera. Bertan senarra izanen zuen Juan Manuel Bilbao mundakarra ezagutu zuen, eta bere herrian lan egiteko luzatu eskeintza erdeinatu barik, gizarte lanetan ihardun zuen Bilbo erori zeno. Orduan Santanderrera joan ziren, eta une samin horietan, Sardinero gamean Euzko Jaurlaritzak zuen etxean berean ezkondu ziren. Rivadesellatik Iparraldera jo zuten gero, Bidartera hain zuzen, hartan Euzko Jaurlaritzak zuen Larroserai delitu eritetxera. Hor zuketzen lehenbiziko semea Josu 1939.eko abenduaren 12an. Gerratea amaizurik, Marse-llatik jalgiz ziren Hegoameriketara buruz, eta Venezuelan jadanik, Zumaiak izeneko hotela irekiko zuten. Hantxe zeudela idazteari ekin zion, berak aitortu legez: «Ciudad Bolívar'en nengoela olerkiari eman nion. 1944. urtean Caracas'ko Eusko Etxe'an euskal idazleen sariketa zala ta, Nere urtearen lau aldiak bidali nuen sariketa ortara. Beste askoren artean Jon Andoni Irazusta ere sartu zan sariketa artan eta oneri eman zioten lenengo saria, eta neri bigarrena. *Euzkadi* aldizkariara nere olerkiak bialtzen jarraitu nuen». Caracasko Euskal Etxeak 1942. urteaz geroztik argitara ematen zuen aldizkarian aldiro zuen olerkiren bat azaltzen. Gutxi ziren euskaraz inprimaturiko orriak, baina gutxi horietan ez ziren gutxi idazleak: Aldegi, Burruntxalieta, Gabiria edota Killikupe, gure Albizurekin batera bai. Bestelako argitalpenetan ere esku sartu zuen, berbarako, zenbait urte berantago ber hiriko abertzale talde batek, Matxari eibartarra buru zutelarik, sortu *Sabindarra* aldizkarian, *Irrintzi* zeritzanean, edota *Euzko Gaztedi* izenekoan. Albizuren ildo poetikoa eza- gutzea ez da guziz zaila, hein batean bederen, alta bere olerkiez osotu bilduma badugu, 1984.ean eta Bilboko Igarri irarkolan atera zen *Olerkiak* izenburu laburra daramana alegia. Santi Onaindiak apailatu honetan bere hiru liburu batzen dira, bada ikus ditzagun banan-banan.

1972.ean bere lehendabiziko olerki bilduma argitaratu zuen Zarautzen, Itxaropenakoen eskutik, *Nere olerki txorta* izenburupean. Sabin Irizarrek ondu hitzaurrearen ostean lau zatitan xuritzen digu barne hatsa zumaiarrak: *Nere oroitea*, *Ipar eta egaldetik*, *Nere biotzeriak* eta *Gogoketak*. 78 olerki ditugu guztira 114 orrialdetan barretaturik. Euskalerrira barne-barneko gogotik ezin alienatu gutizila asezina du. Ama lehorrekoa izan arren, Endañeta baserrikoa, aita itsasgizona zuen, eta ur gaziaren kresala dastagarri dugu oro ahapaldiak irentsi ahala. Eta itsas urrintetan gogokoen etxe urrunekoa, idorrekooi itsas oro berdinar iduri arren: «Itxaso eder, arren nik ditzut / Aundia da ta nere ardura / Artu nazazu zure besoetan / Ta bihurtu nazazu beti betiko / Nere Kantauriko itxas ertzera / Ni jalo nintzan erri maltera / Neretzat seaska abesti gozoa / Izan zalako Kantauriko / Olatuaren / Zurruburu ta marmarra». Irakurle-goareen harrera beroa jaso zuen honakoak, Venezuelen bezala: «Da lraña, goxo, ezititsua, emakume olerkariak egia bezala. Liburu danen, goxotasunaren artean eukitzeko bezalakotxea», hala Txekian ere, Norbert Tauer euskaltzaleak Donostiako *Zeruko Argia* izparringian adierazi zuenez: «Euskara galant eta errazean egindako Balendiñe anderearen olerkiak irakurtzea benetan atsegingarria da. Segur nago haren beste euskerazko lan bat ikusiko dugula. Balendiñe andre, har itzazu nere zorionak. Pragatik, 1972ko urriaren 22an».

Bigarren liburuak *Nere bideetan* du izenburua, eta 1964.ean inprimaarazteko prest bazegoen. Andoni Arozena lasartearrak egin zion aitapontekoarena, eta lautan hogei poesilan ziren guztira. Hau ere hiru zati desberdinetan partiturik dago: *Gure gazteak*, *Esker ona* eta *Ixalpekoak*. Liburuaren izenburua lehendabiziko olerkitik hartua dugu bide denez: «*Exeriko naiz / Notz baitetan / T'atseden artu / Sasi arteko lorak batu / Beatzak odoldu / T'aoaz xurkatu / Oñak neketan / Arintzeko busti / Goizeko intzetan / Eta jarrai olaxen / Nere bideetan*». Hirugarrena *Nere biotz dardarak* dugu, Onaindiak berak aukeratu larogitabost olerki, aurrekoan antzera hiru sailetan banandurik: *Blotz taupadak*, *Guda aldiko kezak* eta *Goratzarreak* eta... Esan bezala, hirugarren bertsolegi hau 1984.ean ageri zen Onaindiaren eskutik, bere miresleen artean irmoenetakoa: «Izadia kantatzen du Balendiñek, eder ta alai, bere barne muiñeko zelaia, jori ta oparo, kantatzen ditu aspertu gabe». ■

Upelak zabalik dira

Gaur Lekunberriko Toki-Alai sagardotegian ofizialki hasiko da aurtengo denboraldia

Gaur, arratsaldeko zortzietatik aurrera, ofizialki irekiztat emanen dute Nafarroako txotx garaia, Lekunberriko Toki-Alai sagardotegian. Bertan izanen dira gure herrialdeko zenbait pertsona ezagun, kirolariak, kulturagileak eta politikariak tarte. Bihartik aurrera sagardotegi guztietako ateak izanen dira zabalik.

Eduñe Elizondo / Iruñea

LEKUNBERRIKO Toki-Alai sagardotegian zabalduko dute ofizialki aurtengo txotx garaia, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Lekunberriko nagusiak bezala sagardogile produktore diren Aldatz, Lekaroz eta Berueteko sagardotegietako nagusiak izanen dira Toki-Alaiko gaurko afarian, baita hainbat pertsonaia ezagun ere, hala nola, Txomin eta Jorge Nagore kirolariak, kulturaren munduko Juanito Gorriti eta Koldo Azpiazu, baita zenbait politikari ere, besteak beste, Ignacio Martinez Alfaro, Nafarroako Gobernuako Nekazaritza kontseilaria, eta beste ordezkari batzuk.

Lekunberriko upelak gaur zabaldu ondoren, beste hiru sagardotegietakoak bihar irekiko dituzte, eta hiru hilabetetan zabalik izanen dira. Apirilaren hasierarekin batera, hurrengo urterarte, berriro itxiko dituzte. Nafarroan, Aldatzko Martxitonea, Berueteko Txetxeneko Borda, Lekarozko Larralde eta Lekunberriko bertako Toki-Alai dira sagardoa etxean egiten duten sagardotegiak.

Berezitasun horri, hain zuzen, garrantzi handia ematen diote sagardogileok, Gregorio Elizetxe Lekarozko Larralde sagardotegiko nagusiak erran digunez. «Badira euren buruari sagardotegi deitzen dioten baina jatetxe arruntak diren etxeak. Gu ezberdinak gara, sagardoa guk egiten dugu eta denboraldia denean saltzen dugu. Jendea ezberdinak gara, erakutsi nahi diogu». Horretarako, elkarte bat sortzeko asmotan dabilta lau sagardotegi hauetako nagusiak, Nafarroako sagar ekoizleak biltzeko. Sagardo ekoizleak biltzea, antza, zailagoa da, bosteko kopurua behar baita gutxienez, «eta gu lau besterik ez gara», jakinarazi digu Inaxio Begiristain-ek, Aldatzko Martxitonea sagardotegiko nagusiak.

Bertako sagarrondoak

berreskuratzen • Lau sagardotegi hauen helburua berdintsua izanik, euren ibilbidea ere parekoa izan da. Beruete eta Lekarozkoa sortu ziren lehendabizi, Lekunberrikoa ondoren, eta azkenik Aldatzkoa. Azken honek bigarren denboraldia izanen du aurtengoa. Berueteko sagarrondoak, berriz, zazpi bat urte dituzte jada. Lekarozko sagardotegiak aurtengo beteko du laugarren denboraldia; Lekunberri-



Sagardoa upeletik dastatzeko aukera izanen da gaurtik aurrera eta, ia bezala, jende ugari hurbilduko dela uste dute sagardogileek.

ANDER GILLENIA
LEIRE ARZUAGA

koak, aldiz, hirugarren urteurrena maiatzean.

Berueteko Txetxeneko Borda sagardotegia da, beraz, zaharrena. Angel Alvarez poliki-poliki hasi zen lanean. Lehen sagarrondoak jarri zuenetik zazpi bat urte igaro dira eta 1.500 ditu orain. Mota askotako sagarrondoak dira gainera: Normandiatik hamalau barietate ekarri ditu, beste hamalau Asturiastik eta hamabost-hamasei inguru bertakoak dira. «Hemengoak oso zuhaitz onak dira. 60 urtekoak ere badira; beraz, gogorak dira», dio Angel Alvarezk.

Bertako sagarrondoak berreskuratu ezezik, produkzio ekologikoa ere bada Txetxeneko Bordako nagusiaren arduretakoa bat. Nafarroako Produkzio Ekologikoaren Kontseiluaren barruan dago, eta aurtengo bere sagardotegiko upeletako batek sagardo ekologikoa du bere baitan. Hori ez du, gaur hasiko den txotx garaian salduko, botiletan sartzeko gordeko baitu, gero leku espezializatuetan saldu ahal izateko.

Angel Alvarezk bezala, bertako sagarrondoak berreskuratzea du helburu Lekarozko Gregorio Elizetxek ere. 2.000 sagarrondo inguru ditu, jarri berriak horietako batzuk, eta sagarrak ematen hasiak beste batzuk. Iparraldetik eta Gipuzkoatik sagarrondoak ekarri baditu ere, bertakoak nahiago ditu Elizetxek. «Hemen lehen sagardo anitz egiten zen eta horregatik, zuhaitz batzuk galdu badira ere, beste asko badauzkagu oraindik. Horiek bildu ditugu guk. Zergatik ekarriko dugu kanpotik, etxean ere baldin badaukagu?», azaldu digu Larraldeko nagusiak.



Nafarroako lau sagardotegi hauen artean Lekunberrikoa da sagarrondorik ez duen bakarra. Nafarroatik bertatik eta Gipuzkoatik ekartzen ditu Andres Urbizuk sagarrak baina, hori bai, etxean egiten du sagardoa. Eta ona omen da, Gipuzkoatik etorritako beste sagardogileek halaxe erran baitiote. Eta bera, noski, harro dago. Dena den, ez du uste Elizetxek Nafarroan Gipuzkoako sagardotegi giroa du-

gunik, «baina bide onean gaude», gaineratu du.

Inaxio Begiristainek, hain zuzen, bide horrek eskaintzen zituen aukerak ikusi zituelako zabaldu zuen Aldatzko Martxitonea sagardotegia, lazkoa izan zuen lehendabiziko denboraldia, eta nagusia kontent dago, «oso kontent», gainera. Oraingo sagarrak kanpotik ekarri behar ditu Begiristainek, bere etxeko sagarrondoak gazte baltira

♦ lazkoa hobetzeko asmoz

URTERO anitz dira txotx garaia helduta Gipuzkoako sagardotegietako upelen bila joaten diren nafarrak. Nafarroa ez da Astigarraga, baina gora doa gure herrialdean sagardotegietako giroa.

Gaurtik hasita apirilaren hasiera bitartean, denboraldi berria dute aurrean. Iaz egindakoa dute denek oraindik buruan. Inaxio Begiristainentzat lehendabizikoa izan zen, eta baita hagitz ona ere. «6.000 litro edan zuen jendeak sagardotegian». Beste 5.000 inguru botiletan sartu zituen. Aurtengoa, dena den, hobea izatea espero du. Baitorra da Begiristain: «Aurtengo sagardoa munduko onena izanen da», dio pozik. Eta badu hori errateko arrazoirik: «Iaz kupelak berriak ziren. Aurtengo, erabilia daudenez, askoz sagardo onagoa aterako da».

Berueteko Angel Alvarezk 12.000 litro sagardo inguru saldu zituen osotara, eta aurtengo, 17.000ra ailegatzeko esperantza du. Txetxeneko Borda sagardotegiko sagardoa, gainera, berezia da, «guria izanen baita Euskal Herri osoko sagardotegirik altuena, 800 metroan gaude». Hori dela eta, beranduago ateratzen da, «baina hobe kontserbatzen da ere». Sagardo berantiarra delako, agian, garrantzatsua gutxiakoa da Angel Alvarezena, «eta argi xamarra» koloreari dagokionez.

Lekarozko Gregorio Elizetxek litro ugari saldu zituen lazko denboraldian ere, osotara, 27.000 inguru. Lekarozko sagardo goxoa da, Elizetxeren ustez bertako giroa nahiko epela delako, hain zuzen ere. «Kostaldetik ez gaude hain urrun, giroa epela da eta horrek badu eragina sagardoarengan», azaltzen du. Lekunberriko sagardoari dagokionez, hagitz ongi kontserbatzen dela azpimarratzen du

♦ Andres Urbizuk.

oraindik. Dena den, argi utzi nahi izan du, «guretzat garrantzitsua zuhaitza» dela.

Horregatik, elkarte sortzea funtsezko da berantentzat. «Hemen badira sagar produktoreak eta horiek guztiak koordinatu beharra dago, hemengo sagarrekin hemengo sagardoa egiteko. Gipuzkoan ere, kanpotik ekartzen dituzte oraindik sagar gehienak, Asturias, Normandia, Britainiatik...». Argi dago, beraz, nafar sagardogileek nafar sagardoa nahi dutela, bertako produktua. Orain arte egin dutena behintzat, Nafarroako sagardozaileen gustukoa izan da, eta hemen ere gora doa sagardotegien txotx garaiko giroa. Gaur hasi eta datozen hiru hilabetetan zehar izanen du nahi duenak gure sagardoa dastatzeko aukera. Upe-
lak zabalik dira. X

* **Xavier Cherez** ♦ Arkitektoa

«Iruñeko harresien barruan eraiki daiteke»

Nafar Ateneoak antolatuta, atzo iluntzean Iruñeko Planetarioan aurkeztu zuen Xavier Cherez arkitektoak 'Arte Ederretako Gotorlekua' bere proiektua, hitzaldi baten bidez. Nafar gazte honek harresi zaharrak hustu eta bertan Liburutegi Orokorra, Kongresuen Jauregia eta Auditorioa egitea proposatu du, eta Iruñeko Udalak antolatutako lehiaketa batean ohorezko saria jaso du ideiak.

Alberto Barandiaran / Iruñea

XAVIER CHEREZEK bost urte eman ditu harresiak hustu eta bertan eraikitzeko egitasmoarekin, baina ez da bakarrik aritu, karrerako ikaskideek ere ordu franko sartu dituztelako proiektua paperera eramaten. Egun harrituta eta haserre dabil ideia beste askok baliatu dutelakoan dagoelako.

■ **Iruñeko harresiak oso inguru erakargarria, interesgarria eta oso toki interesgarrian egonagatik, oso ezezagunak dira. Lan hau egitean aztertuko zenuen horren arrazoa.**

Ezezagunak dira Alde Zaharreko kanpoko aldean daudelako, hau da, komertzioetik eta ohiko ibilbideetatik urrun. Eta ez bada zirkulazioa, inguru hauek hiltzen dira pixkanaka. Gotorlekuan ere, eta nahiz eta mugimendu handiagoa izan, bada geldotasun bat, ez delako proiekturik egin eraikin zahar hauek gure garairekin lotzeko. Horretan oinarritzen da nire tesia, hain zuzen ere: ez dela ezinezkoa gaurkoa eta iragana lotzea heradatu dugun ondarearen galdu gabe.

■ **Proiektu hau zuk sortu zenuen. Nola izan zen hasiera?**

Karrerako azken kurtsoa 1992an amaitu nuen, eta orduan erabaki nuen azken proiektua ez



Xavier Cherez Gotorlekuan joan den asteazkenean.

LUIS AZANZA

zela lan akademiko hutsa izango, baina zerbait pertsonala, oso neurea, eta gainera erabilgarria. Eta proiektu honetan murgildu nintzen. Berehala ikusi nuen mota honetako ikerketa, hau da, bastioi baten barruan kultur azpiegiturak sortzeko ikerketa, egin duen lehen pertsona naizela, eta hori azpimarratu nahiko nuke, prentsan agertu diren notizietan ez delako nire izenik azaldu, nahiz eta ideia neurea izan. Azken finean, baliagarria izango zen ikerketa lan bat egin nahi nuen, eta proiektu honek pixkana liluratu ninduen, ikusi nuelako ez ziola inork seriozki heldu, eta izan nuen benetan zerbait asmatzen ari nintzelako sentsazioa, aitzindaria nintzelakoa.

■ **Oinarrian, proiektuaren filosofia da dagoena aprobetxatzea erabilera modernoetarako, baina nola heldu zenion gaiari? Hau da, zuretzat harresiak barrutik hustu beharreko zerbait ziren, funtsezkoaren estalkia**

bestetik ez, oinarria bera?

Nik gaiari heldu nion inolako aurreiritzirik gabe. Lehen fasea oso hotza izan zen, nahiz eta sormen lana izan, eta egin nuen harresien ikerketa zientifikoa ia. Interesgarriena izan zen nik egin ditudan proiektuetako planoak neureak direla, nik marraztu nituela, ez zirelako existitzen. Baziren zantzu batzuk, baina ez arkitekto batek behar-beharrezko dituen plano osoak. Nik aztertu nuen informazio solte hori, eta azkenean ondorioztatu nuen zenbait tokitan hustu egin daitekeela harresien inguruan dagoen lurra, harresiak beraiek heldu egiten diotelako egitura osoari. Hori oso inportantea da, orain arte pentsatzen zelako lurra eta harresiak batera eraikitzen zirela, eta ezin zela, adibidez, lurra kendu dena erori gabe. Nik, ordea, badut nahikoa datu baieztatzeko zenbait tokitan hustu egin daitekeela ingurua harresiak erori gabe. Horrela, lortuko litzateke inguru honen barrunean eraikitzea egitura nagusiari kalterik egin gabe.

■ **Liburutegi Orokorra, Kongresuen Jauregia, Auditorioa... gune kultural garrantzitsu**

hauek derrigor sartu beharrekoak ziren hemen, edo ematen ahal zitzaizkien harresiei beste erabilera bat?

Badaude arrazoiak hori horrela egiteko. Ni saiatzen ari naiz jakinarazten Iruñeko harresiak badi-tuztela posibilitateak gaur egungo eraikinak bere barnean edukitzeko, aukera hori badagoela. Eta hori jakinarazi beharra dagoela. Eta hiria inoiz ausartzen bada inguru hauek bereganatzen eta orain daukatena baino erabilera handiagoa ematen, kokapena horren garrantzitsua da, non bultzatu beharko litzatekeen erabilera publikoa, eta, nire ustetan, kulturala. Horrela batuko lirateke hiriak dituen bi beharrak: eraikin garrantzitsu horiek, alde batetik, eta ondarearen mantenimendua, bestetik.

■ **Zein izango lirateke eraikin bakoitzarentzat kokaguneak?**

Proposamenak dira, besterik gabe, baina nik Donejakueko Bastoia aukeratu dut gela handi baterako, hau da, Kongresuen Jauregia izango zen gelarako eta Santa Mariako Bastoian kokatuko nuke Liburutegi Orokorra. Bi hauek Gotorlekuan. Labriteko Bastoian Auditorioa izango litzate-

s o s l a i a

Xavier Cherez 1992an hasi zen Iruñeko harresien inguruan ikertzen, karrera amaitzean egiten den azken proiekturako. Bost urteko lanaren ondotik baieztatu du harresien inguruko lurra hustu egin daitekeela egiturari kalterik egin gabe, eta bertan eraikin kultural garrantzitsuak jartzearen aldekoa da, inguruak berak dituen ezaugarriak direla eta.

Nafarroako Gobernuarekin eta Iruñeko Udalarekin gestioak egin ondoren proiektua kontuan hartzea, udalak berak egin zuen delaldia harresien inguruan ideia lehiaketarako. Cherezaren proiektuari ohorezko saria eman zioten, nahiz eta berak sentsazioa eduki hasierako ideiatik sortutako lehiaketa izan zela.

Duen interes bakarra hasi zuen ikerketarekin jarraitzea dela dio, baina ezin du ezkutatu harridura eta haserre, bere ideia bat baliatu duten sentsazioa baitu.

teke. Arkitektura honetarako, bestalde, arau batzuk, teoria bat asmatu dut, hau da, nola lan egin behar den mota honetako bastioi batean. Oso lengoia xumea da, tolestu egiten diren forma lauek.

■ **Nahiz eta hasieratik ideiak mahairatzeko proiektua izan hau, gauzatu ere nahiko zenuke, ezta?**

Inozo samarra izan naizela esan behar dut, ni hasi nintzenean ez zegoelako inor arlo honekin lanean, eta orain, bost urteren buruan, 120 saio inguru egin dira ideia honi buruz. Proiektua unibertsitatean lehendabiziko aldiz aurkeztu nuenean lurrera bota zizkidaten planoak. Gero arrakasta handia izan zuen, baina hasieran, zerbait berria aurkezten denean gertatzen ohi den bezala, gaitzetsi egin zuten. Nire lana izan da, batez ere, ikerketa lana, erakusteko hor zerbait egin daitekeela. Nahiz eta azkenean gauzatu ez, lan hau baliagarria izango da jakiteko zer dugun eta horrekin zer egin dezakegun. Azkenean erabakitzen badugu bere horretan uztea egingo dugu horrela erabaki dugulako, baina jakinda bazeudela beste aukera batzuk. x

P A N E
LUCRÁNDO

LIRIKAZ
HONATAGO

44

GAUR:



CuCo Sanchez

Batzuetan eguzki bat naizela sentitzen dut eta mundua niretzat ez da ezer!!

Gero esnatzen naiz eta par egiten dut. ezereza baino gutxiago naiz.



ZALDI ERDA